






ENTRENATZAILEAK

ESKOLA KIROLA EREMU SEGURUA

- 
- 
- 
- Haurrak ikasten ari dira, ahaztu emaitzaz. Zentratu jolasa erakusten, ondo pasatzen eta horretarako errespetuz aritzen taldekide eta aurkariekin.
 - Ez zapaldu gaitasun gutxiena dutenak, utzi haiei ere jolasten eta ikasteko margena eman. (ez gure taldean ez aurkarietan)
 - Gure taldea nabarmen nagusitzen ari bada bilatu emaitza diferentzia hori handitzen ez joateko moduak: pase gehiago egin, normalean gutxiago parte hartzen dutenei protagonismoa eman...
 - Saritu eta zoriondu haur bakoitzari egindako saiakeragatik eta ez eman duen mailagatik. Haur guztiek jolastu behar dute ahalik eta denbora kopuru bera. Inork gehiago jolastu behar badu txandaka haur guztietatik pasa edo behar gehiago duena jarri.
 - Aurren dugun taldearen aurka ez gara ari. Haiekin batera jolasten ari gara elkarrekin ikasteko. Errespetatu eta lagundu haiek ere ikasi eta ondo pasatzeko baldintzak izan ditzaten.
 - Epaileak ere ikasten ari dira, utzi lasai erabakiak hartzen, hanka sartzen. Ez da lan makala hainbeste jenderen erdian ardura hori hartzea, beraz, babestu eta konfidantza eman. Ez dugu onartzen epailearen erabakiez kezaka aritzea. Gure taldeko kirolariren bat kezaka hasten bada, moztu eta hitz egin berarekin.
 - Partidu hasieran elkartu bi taldeak eta entrenatzaileak eta erreparatu puntu hauek, gogorarazi ikasteko gaudela eta elkar zaindu behar gara talde, entrenatzaile, guraso eta epaileak.

ESKERRIK ASKO ZUEN LANAGATIK